



Hezkuntza sailburuordearen 2022ko abenduaren 7ko EBAZPENA. Horren bidez zehaztu dira Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan 2022/2023 ikasturtean zehar oinarrizko kompetentzien diagnostikoa ebaluatzeko prozesuan aurrez ikusitako probak egiteko jarraibideak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan egindako diagnosi-ebaluazioko prozesua arautzen duenak, definitzen ditu Ebaluazio Diagnostikoaren parte diren helburua, aplikazio eremua, xedea, edukia, ebaluazio-prozesua eta hobekuntza-prozesua.

Ebaluazio Diagnostikoaren probak funts publikoekin sostengatutako zentro guztietan aplikatuko dira, 2015eko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuko 54. artikulua xedatutakoa betez; horrenbidez Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri da.

Ebaluazio diagnostikoak prestakuntza- eta orientazio-izaera du ikastetxeentzat, eta informazio-izaera familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat. Datu zorrotz eta fidagarriak oinarri hartuta, hezkuntza jardunbideari eta ikastetxeko hezkuntza-plangintzaren inguruan erabakiak hartzeari buruzko hausnarketa bultzatu nahi du, hobekuntzarako Esku-hartze Plana aplikatuta emaitzak hobetzen laguntzeko.

2022-2023 ikasturteko **Ebaluazio Diagnostikoak** ondoko aplikazioa du:

- Etapa erdiko ebaluazio zentsala (Lehen Hezkuntzako 4.mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan).

Ikasleei diagnostikorako probak aplikatzeko, aplikazio-prozedura zehatza eta kontrolatua behar da, eskuratuko diren emaitzetan zorrotasun maila handia bermatu ahal izateko.

Horrekin lotuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan diagnosi-ebaluazioaren prozesuak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 6.1 artikulua aurreikustean du Hezkuntza Sailburuordetzaren Ebazpen bidez ezarriko dela ikasturte bakoitzerako proben aplikazioa egingo den aldi zehatza eta horien iraupena. Halaber, Agindu horretako Azken Xedapenetako Lehenengoak eskumena ematen dio Hezkuntza Sailburuordetzari bertan ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Beraz, 2022-2023 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan oinarrizko kompetentzien Ebaluazio Diagnostikoko probei buruzko jarraibideak eman behar dira. Horretarako:

XEDATU DUT:

1) 2022-2023 ikasturtean **etapa-erdiko** proben ebaluazioa honela egingo da:

- a) Ikastetxe guztietako talde guztietako ikasle guztiei ebaluatuko zaizkien kompetentziak:
 - i. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - ii. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - iii. Matematikarako kompetentzia.
- b) Talde guztietako ikasle guztiei ebaluatuko zaizkien kompetentziak, multzoka banatuta:
 - i. Zientziarako kompetentzia.



- ii. Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- iii. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.

c) Azkenik, ikasle guztiak bete beharko dute testuinguruari buruzko galdetegi bat. Bertan bilduko dira ezaugarri indibidualekin lotutako eta ikastetxearen inguruko galderak, baita euskal hezkuntza-sistamarako interesgarriak diren beste arlo batzuk ere (euskararen erabilera, berdinen arteko tratu txarrei buruzko pertzepzioa, genero berdintasuna).

2) Probak egiteko iraupena eta modua:

a) Etapa erdiko Ebaluazio Diagnostikoko probak ondoz ondoko bi eskola-egunetan aplikatuko dira, goizeko saioetan. Bi egun horietan, parte hartuko duten ikasleen ordutegia ebaluazio honetako antolaketa-beharren arabera egokitu beharko da. Aplikazio-egunetako bakoitzean, ikasleek errendimendu-probak egingo dituzte eta proben artean atseden-aldiak izango dituzte.

• Lehen eguna:

- (1) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- (2) Matematikarako kompetentzia.
- (3) Atsedernaldia.
- (4) Zientziarako kompetentzia ala Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ala Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.

• Bigarren eguna:

- (1) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- (2) Zientziarako kompetentzia ala Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ala Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- (3) Atsedernaldia.
- (4) Testuinguruari buruzko galdetegia.

b) Probak aplikatzeko aldia honako hau izango da:

- i. DBHko 2. mailako ikasleak: 2023ko otsailaren 23tik martxoaren 14ra.
- ii. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak: 2023ko martxoaren 13tik martxoaren 30era.
- iii. Aplikazioan sor daitezkeen ezohiko edo ustekabeko egoerak konpontzeko aurreko puntuetan adierazitako aplikazio-aldiak egun batzuek luza daitezke.

c) Probak gailu informatiko baten bidez egingo dira (ordenagailua, Chromebook edo tableta); ahal dela, online aplikazioa izango da hori egiteko baliabideak dituzten zentro guztietan.

d) Aplikazioa egiteko, ikasleen berezko gailuak erabili ahal izango dira; nolahi ere, ikastetxeak eskuragarri dauden gailu propioak jarriko ditu ikasleen eskura, bereziki Hezkuntza Sailak emandako eredu berriak.

3) Ebaluazio Diagnostikoa hasi aurretik, aurrez aurreko eta/edo online bilerak egingo dira ikastetxeetako zuzendaritzekin, Ebaluazio Diagnostikoari buruzko prozesu osoaren berri emateko.

4) Hezkuntza Sailak, lehiaketa publiko bidez, 2020ko maiatzaren 25ean Ikertalde enpresari esleitu dizkio Ebaluazio Diagnostikoaren lanak. Enpresa esleipendunaren lana ISEI-IVEIk gainbegiratu du zuzenean, eta zorrotz bete beharko ditu ebaluazio honetarako zehaztutako protokolo eta irizpide estandarizatu guztiak.

5) Ikastetxeak ikasleei eta ikastetxeari buruzko datuak sartu behar dituen aldian, *datuen sarrera* izenekoa, ISEI-IVEIk telefono bat eta mezu elektronikoko bat jarriko ditu ikastetxeen eskura,



Ebaluazio Diagnostikoko zuzendaritzei eta koordinatzaileei laguntzeko.

- 6) Aplikazio-aldian, ISEI-IVEIk eta Ikertalde enpresak zentroein arreta emateko zerbitzu iraunkorra izango dute martxan, aplikazio-prozesu horretan sor daitezkeen arazo guztiak azkar eta eraginkortasunez konponduko direla bermatzeko.
- 7) Probak aplikatzen parte hartzen duten zentrotik kanpoko langileak behar bezala identifikatuta egongo dira. Agindu horren 6.3 artikuluan adierazten den bezala, zuzendaritza-taldeari dagokio, Ebaluazio Diagnostikoaren Koordinazio Batzordearen bitartez, probak behar bezala aplikatzen laguntzen duten antolaketa-alderdi guztietan laguntzea eta baliabideak ematea.
- 8) ISEI-IVEIk errendimendu-proben online simulazioa jarriko du ikastetxeen zerbitzura, ikastetxeak eta ikasleek aplikazio-sistema ezagutu dezaten eta sor daitezkeen arazoak konpon ditzaten. Ebaluazio Diagnostikoa egiteko, ikastetxe guztiek honako hauek egin beharko dituzte:
 - a) Simulazioa probak aplikatzeko baldintza tekniko berberetan egitea: ordenagailu berean, ikasle guztiek aldi berean eta ikastetxearen ohiko dinamika errespetatuz, simulazioa egitean Internetera konektatutako ordenagailuen kopuruari dagokionez.
 - b) Ikasle guztiek simulazioarekin duten konektibitatea eten egiten bada zenbait arrazoi teknikoengatik, berehala jakinarazi beharko zaio Ikertalde enpresari.
 - c) Aplikaziorako konektibitatea eteten bada ikastetxeko wifi sareko gainkarga baten ondorioz, klaustroak sarearen erabilera doitu beharko du aplikazio-egunetarako, konektibitatea bermatuta gera dadin.
- 9) Ebaluazio Diagnostiko honen aplikazioaren garapenean honako alderdi hauek izango dira kontuan:
 - a) Etapa erdiko Ebaluazio Diagnostikoan, ikastetxe bakoitzeko etapa bereko talde guztiek probak aldi berean egin beharko dituzte, egun berean eta protokolo eta aplikazio-irizpide berberen arabera, ikasle guztiek probak baldintza beretan egiten dituztela bermatzeko.
 - b) Ikasleak aplikazioko gelan egongo dira taldearekin ebaluazio honetako saio bakoitzerako aurrez ikusitako denbora amaitu arte.
 - c) **Zuzendaritza-taldeari edo hark eskuordetutako pertsonari dagokio ikasleek aplikazio-prozesuan zehar jokabide ona izango dutela ziurtatzea, baita bi aplikazio-egunetan errendimendu-probetako bakoitzaren artean adierazitako atsedeen-aldian ikasleak antolatzea eta zaintzea ere.** Zuzendaritza-taldeak, 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 5.3 artikuluan definitutako Koordinazio Batzordearen bidez, antolaketa-neurri egokiak hartuko ditu ikastetxeko ikasleek probak ahalik eta baldintza onenetan egingo dituztela **bermatzeko**, ikasleen errendimendua eragotz lezakeen etenik eta distrakziorik gabe.
 - d) Zuzendaritza-talde bakoitzak aldeztu aurretik jakingo du, jakinarazpen ofizial baten bidez, zer datatan egingo den aplikazioa bere ikastetxean. Erabat arrazoitutako egoerak direla eta probak proposatutako egunetan egin ezin badira, ikastetxeko zuzendariak egoera horren berri emango du, aldaketa posiblea adosteko.
 - e) Ebaluazioaren aplikazioa ikastetxearen egoerarako egokiena izan dadin, **ekipamendu informatikoen inbentarioa egingo da, baita zentroaren konektibitatearen ezaugarriena ere, azarotik abendura bitartean bidalitako galdetegi baten bidez. Galdetegi honek ahalik eta zehatzen adierazi behar du ikastetxeak zer ekipamendu mota duen ebaluazio-probak egiteko. Ondoren, ikastetxearekin adostuko da aplikazio-sistema egokiena zein den.**
 - f) Proben aplikatzailea arduratuko da ebaluazio honetan erabiltzen diren material eta tresna guztiak zaintzeaz, bai eta haien konfidentziasun osoa bermatzeaz ere; horretarako, aplikazio-prozesutik kanpoko edozein pertsonak ezagutu edo maneiatu ahal izatea saihestu beharko du une oro.
 - g) Talde bakoitzean probak egiten diren bitartean, **aplikazioaren arduraduna eta ikastetxeko zuzendariak proposatutako pertsona bat egon beharko dira ebaluazio-gelan**, edozein anomalia konpontzen laguntzeko edo ikasleen portaera-arazoak



- konpontzeko. Era berean, une jakin batzuetan eta hautatutako ikasgeletan aplikazio-prozesua kontrolatzeko eginkizunak dituen beste pertsonaren bat egon ahal izango da (Hezkuntzako Ikuskaritza, ISEI-IVEI edo enpresa aplikatzailea).
- h) Talde batean NCE duen eta pertsona baten laguntza behar duen ikasle bat eskolatuta badago (zeinu-hizkuntzako interpretea edo irakaslea, hezkuntza-laguntzako espezialista, IBT-CRIko teknikariak, irakasle laguntzaileak), pertsona hori bertan egon ahal izango da probak egiten diren bitartean, ikastetxeak esleitzen duen irakasleaz gain. Laguntzaile horrek konfidentzialtasun-konpromiso bat sinatu beharko du bere eginkizunean ezagutzen dituen proben edukiari buruz.
- i) HPBak dituzten ikasleen kasuan, Ebaluazio Diagnostikoak jasoko ditu ikasleak ikastetxean curriculumean sartzeko dituen egokitzapenak. Horretarako, **datuak sartzeko aplikazioan** ikasle horiek erabiltzen dituzten baliabide espezifikoak jasoko dira (irakurgailuak, ordenagailura sartzeko egokitzapenak, FM; audifonoak, etab.). Bestalde, ikasle horien estresa ez areagotzeko eta aplikazioan zehar antolakuntza ez desitxuratzeko, ez da erantzun beharreko galderen kopurua murriztuko, baizik eta **ikasleak probarako ezarritako denboran erantzun ditzakeen galderei erantzungo die**. Hala ere, **batez besteko puntuazioari dagokionez, erantzun dituen galderak bakarrik zenbatuko dira**.
- j) Ikastetxean irakurgailu digitala erabili ohi duten eta irakurtzeko eta/edo idazteko zailtasunak dituzten ikasleek (adibidez, dislexia, ikusmen-desgaitasuna, hizkuntzaren berriazko zailtasunak, etab.) probetan ere erabili ahal izango dute. Ikasleek testuak ordenagailuan entzun ahal izango dituzte osagarri horren bidez. **Datuak sartzean, informazio hori ikasleen datuetan islatuko da**.
- k) Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak testuinguru-galdetegi bat beteko du, ikastetxearen oinarriko ezaugarri batzuekin zerikusia duena. Datu horiek ISEI-IVEIk emaitzak interpretatzeko erabiliko dira.
- l) Lehen Hezkuntzako 4. mailako edo DBHko 2. mailako ikasleei eskolak ematen dizkieten irakasleek testuinguru-galdetegi bat osatuko dute, emaitzak egoera errealera hobeto egokitzeko.
- m) Ebaluazio Diagnostikoarekin batera, Lehen Hezkuntzako eta DBHko irakasleen lagin bati euskararen irakaskuntzarekin lotutako galdetegi bat aplikatuko zaio, haien egoeraren diagnostiko zehatzagoa egiteko.
- 10) Konpetentzien errendimendu-probak eta galdetegia ordenagailu bidez aplikatuko dira. Horretarako, aplikazioaren beharretara hobekien egokitzen den ikastetxeko ekipamendu informatikoa erabiliko da, honako irizpide hauei jarraituz:
- a) Ikastetxeak bermatu beharko du ebaluazio-probak aplikatzen diren bitartean ekipamendu informatikoak sare elektrikora konektatuta daudela edo, bestela, bateriek hiru ebaluazio-probak (goiz osoan) egiteko behar besteko iraupena dutela.
- b) Aplikazioa Internetarako konexioarekin (online) egiten bada, ekipamendu informatikoen (TIC/IKT) ardura duen zentroko pertsonaren batek eskuragarri egon beharko du aplikazioaren egunetan.
- c) Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia-probetan entzumenari eskainitako atalean hainbat entzunaldi egingo dira. Hori dela eta, ikastetxeak bermatuko du ikasle guztiek konekta daitezkeen entzungailu pertsonalak dituztela, eta aplikazioa egin aurretik egiaztatu dela ekipamendu informatikoetan funtzionatzen dutela, hizkuntza-kompetentzia entzumenezko probak egiten dituzten bi egunetan erabiltzeko. Helburua da ikasle bakoitzak modu autonomoan eta higiene-bermeekin entzun ahal izatea aipatutako entzunaldiak.
- d) Aplikazio egunen aurretiko bisita egiten duen Ikertalde enpresako pertsonak ekipamendu informatikoak berrikusiko ditu, jardunaldi horietarako erabilgarri eta ondo funtzionatzeko moduan egon daitezen. Komenigarria litzateke bisitan ikastetxeko informatika-arduraduna egotea.



- 11) Probak aplikatu baino egun batzuk lehenago, ebaluazio honetan parte hartzen duen talde bakoitzeko tutoreak proben helburua, ezaugarriak eta garrantzia jakinarazi beharko dizkie ikasleei. **Oso garrantzitsua da irakasleek ikasleak Ebaluazio Diagnostikoa ahalik eta ondoen egitera animatzea eta motibatzea.** Era berean, ISEI-IVEIk ebaluazio-probak egiteko jarraibide orokorrak bidaliko dizkie ikastetxe guztiei aplikazio-aldia baino zenbait aste lehenago, eta libre utzitako itemak eta kompetentzia guztien proben simulazio-adibideak jarriko ditu haien eskura, ikasleek proben formatua aurretik ezagutu dezaten. **Ikasleei ez zaizkie aplikazioaren data zehatzak jakinaraziko.**
- 12) Hezkuntzako Ikuskaritzak probak aplikatzeko prozesuaren kontrola egingo du taldeen lagin batean, ebaluazio honetarako zehaztutako irizpide estandarizatu guztiak errespetatzen direla egiaztatzeko. Lan horren ondorioz, Hezkuntza Ikuskaritzak laburpen-txosten bat egingo du, eta Hezkuntza Sailburuordetzari eta ISEI-IVEIri helaraziko die. Bertan, aplikazio-prozesuan antzeman diren arazoak, haren balorazio orokorra eta egokitzat jotzen dituen hobekuntza-proposamenak jasoko dira.
- 13) Etapa erdiko ebaluazioa egindakoa, honako txosten hauek egingo dira:
- Ikastetxearen behin-behineko txostena (2023ko ekainean).
 - Ikastetxeko behin betiko txostena eta familientzako txosten indibidualak (2023ko azaroan).
 - Hezkuntza-sistemaren txosten exekutiboa (2024ko otsailean).
 - Txosten horiek bidaltzean, kontuan hartu beharko da izaera pertsonaleko datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoa, baita informazioaren sarbide, erabilera eta tratamenduari buruzko 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 7. Artikuluan adierazitako berme guztiak ere. 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 8.2 artikuluan adierazten den bezala, zuzendaritza-taldeak kudeatu beharko du familia bakoitzari emaitza indibidualak ematea.
- 14) Jasotako emaitzek ikastetxe bakoitzaren barne-ebaluazioei buruzko informazioa osatzeko balioko dute, hobekuntza-prozesuarekin jarraitzeko, 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 8. artikuluan adierazten den bezala. Hobekuntza-prozesu horretan, 2023ko ebaluazioan lortutako emaitzez gain, kontuan hartu beharko dira aurreko Ebaluazio Diagnostikoetan lortutakoak, ikastetxea hobetzeko aurreko planetan definitu eta adostutako jarduera-proposamenak eta Hezkuntza Sailak oro har ezarritako hobekuntza-helburuak.
- 15) Une honetan, beharrezkoa da ikasgelan euskararen erabilera ikertzea eta, dagoeneko, adin txikietan egitea. Horregatik, 2023ko maiatzetik aurrera, ebaluazio kualitatibo bat egingo da Lehen Hezkuntzako 4. mailan, ikastetxeen lagin batekin. Hiru hizkuntzetako idatzizko adierazpena eta euskarazko ahozko adierazpena eta ahozko elkarrekintza aztertuko dira.

Gasteizen, 2022ko abenduaren 7a

Begoña Pedrosa Lobato
Hezkuntza sailburuordea